

## **BESTE BEHIN ERE, GEHIEGIZKO GUTXIENEO ZERBITZUAK.**

Biharko greba eguna ez da egun arrunta; egun horretan langileok gure aldarrikapenak eta salaketak adierazteko bitarteko legala baliatzen dugu. Salbuezpenezko eguna dela abiapuntutzat hartuta, irakasle guztiok – grebaren deialdiaren aldekoak izan ala ez izan-eskubide hori babestu behar dugu.

Greba egunaren bezperan, sindikatu deitzaileek egindako alegazioei muzin eginez eta inolako negoziatorik gabe, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak gehiegizkoak diren gutxieneko zerbitzuak inposatu ditu, eta horien berri eman die ikastetxeko zuzendariari. Ditugun datuen arabera, hainbat eta hainbat eskoletan gutxieneko zerbitzuek langile-taldearen laurdenari eragingo diote. Horrek, beraz, izugarri baldintzatuko du grebaren jarraipena.

Hezkuntza Itunean jaso bezala, gutxieneko zerbitzuak 2018 urtean sindikatu eta administrazioaren artean negoziatu behar dira, eta Nafarroako Gobernua ez da honetaz arduratu.

Egun bateko grebak ez du ikasleen hezkuntza eskubidea urratzen.

Greba eskubidea, eta ikasleek atendituak izateko duten eskubidea babeste aldera, LAB, STEILAS eta ELAren aburuz nahikoa zen, Euskal Herriko beste eskola batzuetan egin bezala, zuzendaritzako kideren bat eta atezaintzako norbait egotea baina hau guztia negoziatzeko tarterik ere ez dugu izan.



## SERVICIOS MINIMOS ABUSIVOS, UNA VEZ MÁS.

El día de huelga de mañana no es un día normal; en este día una parte de los trabajadores y trabajadoras hacemos uso de este instrumento legal para manifestar nuestras reivindicaciones y/o denuncias. Considerando la **excepcionalidad de esta jornada**, el conjunto de los trabajadores y trabajadoras – estemos a favor o no de la convocatoria de la huelga – debemos proteger al máximo este derecho.

En vísperas de la Huelga, **haciendo caso omiso de las alegaciones presentadas por los sindicatos convocantes y sin ningún proceso de negociación, el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra impone unos servicios mínimos abusivos** que notifica a las direcciones de los centros. Tenemos constancia de centros en los que los servicios mínimos implican a una cuarta parte de la plantilla, con lo que condiciona totalmente el seguimiento de la huelga.

La negociación de los servicios mínimos está recogido en el Pacto Educativo, tenía que haber sido negociado durante el año 2018 entre los sindicatos y la administración, pero el Gobierno de Navarra ha eludido sus responsabilidades en este punto.

Un solo día de huelga no vulnera el derecho a la educación del alumnado.

Con el fin de preservar el derecho a la huelga y el derecho que tienen las alumnas y alumnos a ser atendidos, los convocantes LAB, STEILAS y ELA consideran que era suficiente con la presencia de algún/a integrante de la dirección y con haber garantizado el servicio de portería para que el centro estuviera abierto pero ni siquiera ha habido ninguna posibilidad de negociación.

